

**EKITALDIAK**

- 23 Janvier  
MANIF à Hendaye contre la LGV2  
16 h. à la Gare.
- 24 Janvier  
Mascarade Souletine à LICQ.
- 28 Janvier  
Eric DICHARRY, anthropologue,  
au Musée basque de Bayonne  
18 h.
- 6 Février  
(11h) Chaîne humaine géante à  
Bayonne près de la Mairie, en sou-  
tien à EHLG.
- 16 Février  
Procès en appel à Pau contre EHLG  
et son Président (13h30).

**Rejoignez EA**

"un parti abertzale démocratique  
et pacifique pour un Pays Basque  
Européen réuni et debout !"

Izena / Prénom : .....

Deitura / Nom : .....

Helbidea / Adresse : .....

.....

Tél. : .....

Email : .....@.....

Contact régional  
pour Labourd - B. Navarre, Soule

**ZUBIAK**  
34, rue Pannecau - 64100 Baiona  
e-mail : aldizkaria@zubiak.org  
© 05 59 25 50 98 / 06 76 50 58 54  
Fax : 05 59 25 50 98  
www.euskoalkartasuna.org  
www.zubiak.org

Parti Socialdémocrate  
Basque et fédéraliste  
européen

**ZUBIAK, n° 36**  
ISSN 1771-0464  
Imprimeur : Imprimerie Artisanale -  
14, Pannecau - 64100 Bayonne / Baiona  
Directeur de publication : P. M. Etchepare  
Editeur : Zubiak, 34 Pannecau - 64100 Baiona  
Date : 2010 Janvier - Urtarrila  
Prix : 2 €

**SOLASKETA ENTRETEN**

**Manuel Lekuona saria duelata...**

Entretien avec le professeur Tx. PEILLEN.

Ecrivain et chercheur prestigieux, lauréat du prix Lekuona décerné  
par Euko Ikaskuntza



**Txomin Peillen**

**N**ola hasi zinen  
Txomin, euskal mun-  
duari oharitzen?

Nire sorterrian, Parisen  
eta etxean nuen Euskal  
Herria, gurasoak beti euska-  
raz mintzatzen zirelako, gero « euskal  
munduak » ezagutu nituen : aski hurbil  
nuen Zibero debrua, franko urrun zen  
manex mundu saindua eta gogoena  
Hego Euskal Herrian, han bainituen hiri-  
tara adiskideak egin eta haiek bainindu-  
ten euskaldun, idazle eta abertzale  
egin.

**Hainbeste gauzen artean egin duzu-  
nean zer duzu gehienik gustukoa  
izan duzuna?**

Dudarik gabe euskararen ikastea eta  
idaztea, baita jende xeheekin etnologia  
ikerlanak egitea.

**Nola ikusten duzu kultura sailean «  
euskal munduaren » eta « ingurukoa-  
ren » arteko harremana gaur egun?**

Francoren garai txarretan arrotz her-  
riez gehiago arduratzen ziren euskaldun  
kazetak, Argia aldizkariak oraino jarrait-  
zen du, baina Egan eta Jakin delakoek,  
orain Euskal Herria baizik ez dute gai.  
Halaber, euskal literaturan moda da inti-  
mista izatea, Euskal Herriko gauzen  
aipatzea, edo Estatu Batuak, baina  
Italiarik, Greziarik, Portugalik edo  
Errusiarik ez balitz bezala bizi gara.  
Aitortu behar da, itzulpen bidez ezagut'  
ditzakegula herri hauek.

**Euskal intelektualak eta euskal ara-  
zoak loturarik behar ote dute ? Eta  
zertan nagusiki?**

Intelektuala frantses asmakizun bat  
izan da, idazlea politika munduan argi

bat izan behar zuen; hori,  
salatu zuten Mazziochi  
andreak eta Camusek ere:  
ezkerreko intelektualak  
komunismoaren eta stalinis-  
moaren argiari lotu baitziren.

Orain, intelektual profetarik ez dago,  
pentsatzaileak baizik, politikeroentzat  
formulak asmatzen dituztenak eta  
alderdi baten ideiekin lotua izan behar  
ez luketenak.

**Intelektual bezala kezka handirik?  
Zoin bereziki?**

Ez naiz intelektuala, besteen "argi"  
dena, beste jende bakun asko bezala  
pentsatzailea. Kezka handiena erlijio  
fanatismoen eta sekten igoera zait eta  
Frantzia bederen zer politika dorpea  
eramaten den, ezkerre musulmanzale  
bilakatuz Sarkozy baitu mesfidantza  
hori berritu Frantzia. Badakigu musul-  
manen ametsa dela Europa islamizat-  
zea, idatzi eta erraten dutelako, denbora  
berean mota guztietako kristozaleak  
beren mendebaldeko proselitismoare-  
kin, munduko erlijio txipi eta animismoak  
galarazi nahi dituzte eta „salbaiak“  
Amazona zokoraino edo Kongo zokorai-  
noko oihanetan jarraitzen dituzte.

Beste kezka dut basa kapitalismotik ez  
garela atera eta jali bezain sarri, oraino  
beste krisiarik izanen dela hori baita jen-  
deen historia: ez da marxistek sinesten  
zuten bezala norabide zuzen eta  
bakarra, inguruka dabilana baizik, histo-  
ria da sugea bere buztana ausikika  
dabilena. Gizonak ez du besteen eskar-  
mentuekin deusik ikasten beti oker eta  
huts berdinetara erortzen da eta mate-  
rialki aitzinamenduak izan ere, gizartea  
noiz nahi gibelka joan daiteke.



**ZUBIAK**

*Hari piruak orratza baino luzeago izan behar !  
Il faut que le fil soit plus long que l'aiguille ! ( vieux proverbe basque )*

**Sommaire / Nun zer**

- 1. or. **HAZKETA 2.000**
- 2. or. - **EA en Argentine**  
- **Euskal presoek eskubideen alde**
- 3. or. **E.A. Beti lanean**
- 4. or. **Ingurumena**
- 5. or. **R & P.S. en Campagne**
- 6-7. or. **GINaBizArako Abertzaleak**
- 8. or. **Gogoeta / Tx. Peillenek Manuel  
Lekuona saria**

**Bilbon 45.000 manifestari euskal presoek eskubideen alde !**  
45.000 manifestant(e)s à Bilbao pour la défense des droits des prisonniers basques



**GAIA / THEME**

**« HAZKETA 2.000 »**



**Miren Amestoy - Arduraduna**

**1 / Orroitaraz diezaguzu, Miren, zer-  
tako eta nola abiatu zintuten " HAZ-  
KETA 2.000" elkarte ezaguna.**

Hazketa 2010 elkarte sortu zen 1994-  
ko abandoan Hazparneko herriko etxeak  
hazpandarrer erran zelarik Hazketa  
ondarkintegia France-Déchet's enpresak  
kudeatuko zuela 20 urtez 20 hektarreko  
gunea, **Baiona Angelu Biarritz** herri

elkargoko zikinen parte handi baten tratat-  
zeko. Guk lanjerra ikusi genuen hasi BAB  
rekin eta gero beti urrunagotik etorriko  
zirela, Hazparne zikintegi erraldoi bat bila-  
katuz eta ez gira tronpatu. Etxe ondarkine-  
taz kanpo, **Departamendu** guzitik zikinak  
heldu dira Hazparnera eta **Grand-Sud-  
Ouest** hortarik ere.

**2/ Zer laguntza mota ukan duzue  
sail eder hortan jarraitzeko ?**

ez dugu nihundik laguntzarik ez bai-  
tugu ere eskatzen.

**3/ Botere publikoek nola ikusten  
dute zuen lan balios hori ?**

Botere publikoeri behar zaie galdatu.  
Morvan oraino Suprefeta da izan ditugun  
suprefetetan gehienik entzuten gaituena  
bainan ez dugu ardiesten behar ditugun  
erantzunak, larderia handia behar baita  
Suez enpresarekin aritzeko.

**4 / Zertan zirezte eta zeri buruz ari  
orain ?**

2009an etxeko ondarkinetaz presenta-  
tua izan den departamenduko plangintza  
hori arras hurbiletik jorratu dugu, Hazketa  
gunea aipatua baitzen, beste batzuen  
arte. Bilkura publiko batetara hazpandar  
eta hautetsiak gomiatu ditugu eta aho

batez denak ados ziren petizione baten  
bitartez jakinarazteko Hazparnek aski  
emana zuela . 2015an 20 urte eginen du  
Hazparne ondarkintegi dela. Kontrata  
bururatuko denean gunea betea izanen da  
ikusiz zenbat ondarkin sartzen den urtean  
(72 000 tona). Urtero, Enpresak furnitzen  
duen txostena ikertzean ageri da ondarki-  
nak ez ditugula ikusten tipitzen baizik eta  
emendatzen ... gure asmoa da orai zikin-  
tegi hori hesten ikustea eta ez besterik  
Hazparne aldean idekitzea. Hautetsien  
sustengua badugu. Gauza onekin bezala  
txarrekin ere ondarkin tratatze gunek ez  
ditu herri batek baizik jasan behar. Denek  
ondarkinak egiten ditugu zoritarrez eta  
aldizkatu behar dira horien trata-tokiak,  
zikinik ez egitea lortu artino.

**5/ Zer aholkatzen duzu euskal ingu-  
rumen hobea ukan dezagun laster-  
renik ?**

Bakotzak bere buruari galdatzea zer-  
bait erosi edo egin aintzin " zenbat ondar-  
kin eginen dut hori erostean edo egi-  
tean ?" gero, ondarkintegiaren ikustera eta  
usaintzera jitea konzientzia hartzeko ez  
dugula segitzen ahal ondarkin mendiak  
egiten, urak eta aireak kutsatuz...

Milesker eta izan ontsa, Miren, goraint-  
ziak ere etxan.

Mediados del 2002, el entonces secretario general de EA, Gorka Knorr propone a tres argentinos de origen vasco, la fundación de un Alkartetxe en Argentina.

A las semanas dimos el sí y en septiembre de ese año, en el Día del Partido, en Altsasu, decíamos que nos sentíamos orgullosos de integrarnos en EA, en un Partido Nacionalista Vasco Independentista, Democrático, Pacifista y Socialdemócrata, donde los principios teóricos y la práctica política diaria son idénticas, sin dobles discursos, ni tuteladas ajenas.

En noviembre, se producía lo que algunos llamaron “el desembarco argentino de EA”, al recibir en Buenos Aires y Rosario, al lehendakari Garaikoetxea, a la Consejera Iztueta y Gorka Knorr. Fueron los tiempos de la captación de los primeros afiliados que firmaron el acta fundacional del Alkartetxe, el 7-XII-2002.

Siete años después existen dos Alkartetxes en Argentina que trabajan en tres frentes:

La FORMACION constante político-cul-



Bigarren lerroan ezker, Mikel EZKERRO, erdian Karlos GARAICOETXEA Lehendakaria.

tural de los afiliados.

La INFORMACION VERAZ del conflicto nacional vasco a la sociedad argentina y a los medios de comunicación

El DIALOGO como necesidad inexcusable entre todas las fuerzas patrióticas vascas que así lo deseen y la condición de la condena de la violencia y la utilización exclusiva de vías DEMOCRATICAS y PACIFICAS.

Los Alkartetxes de EA-ARGENTINA tratamos de hacer una política vasca diferente a las de otras siglas, priorizando el CONOCIMIENTO a través de la FORMACION de CUADROS, llevando el tema vasco al ámbito universi-

tario, contactando con periodistas y medios de comunicación a nivel nacional y local.

Hemos participado con ponencias y personalmente en Congresos de EA y Días del Partido y en estos siete años hemos sentido el afecto y apoyo de distintas Direcciones Nacionales y de personas que nos han visitado como el lehendakari Garaikoetxea, los expresidentes Errasti y Ziarreta, las/los Consejeras/os Iztueta, Larrañaga, Azkarraga,

Intxaurreaga y Campos, parlamentarios Lasa, Knorr, Larreina, entre otros.

Desde Argentina, un País con gran presencia de descendientes de labortanos, benabarros y zuberotarras, un saludo fraternal a las/los compañeras/os de EA-IPARRALDE.

GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA.  
GORA INDEPENDENTZIA,  
GORA EUSKO ALKARTASUNA.

Mikel EZKERRO

## Bilbon 45.000 manifestari euskal presoeren eskubideen alde !

Une véritable marée humaine que cette manif du 2 janvier dernier à Bilbao à l'appel des partis EA, Gauche abertzale, Aralar, Alternatiba et AB secondés par les syndicats ELA et LAB et d'autres organismes sociaux. Quelques jours auparavant, la même manif avait été interdite par l'Audiencia nationale espagnole au prétexte que ses instigateurs étaient sûrement des proches de si scandaleusement pour otages, faisant subir une double peine aux parents contraints souvent de faire pour leurs visites des milliers de kilomètres aller retour ! On pouvait aussi y entendre plusieurs slogans comme « Independentzia ! » pour indiquer que le peuple basque aspire sans tarder à sa souveraineté ETA. Mais la manif en question fut maintenue en changeant

simplement l'horaire et le lieu. Et cette fois, quelque peu tolérée ! Tout s'est déroulé dans un ordre impeccable, scandé par de nombreux cris surtout en faveur des droits des prisonniers que le système franco espagnol tient en Europe.

**Uholde bat bezala Bilboko karriketan iragan urtats biharamunean EA, Ezker Abertzaleak, Aralar, Alternatiba eta Abertzaleen Batasunak deiturik. Dena ordena gaitzean iragan da, oihi aintz entzuten zirela bai euskal presoeren eskubideen alde, bai euskal independentziaren alde ere. Kazetari zernahi ere inguruetan, zeren manifa berdina debekatua izana baitzen bi egun lehenago espagnol Audientzia nazionalaren ganik, baiziketa horren gibe-**

**lean ETA koak zitezela segurrenik ere...**

**Hor ibili den jendeak bietan pentsatu du Euskadi dagon kenka txarrean ( alabainan espagnol ezker eta eskuina eskuz esku jarriak abertzaleen kontra ! ) bide segurrena aintzinateko izanen dela hain segur abertzaleak elkarrekin joka ditzen gehiago, elkarren jorran edo jaten eta zatiketetan denbora galtzeko orde. Bainan, ikusten denez, bada oraino bide hortaratzeko. Nahiz bidea ongi hasiz geroz, hortik aintzina joaitea erretxago izanen den. Euskal Herri iparraldean berean baitugu, naski, zer ikus eta bereziki egin !...**

## OMORE BILA

Behin batez, ama batek bere haur nagia bati : « Badakik lur honetan garela lanean artzeko eta ez aireko ulueri beha egoiteko ! » Semeak orduan, ez baitzen halere kaskotik xilo : « Hola balinbada lurrean, nik, itsasoan nahiago dut lan egin, handitu eta ! »

Jon de La Lande

letasuna berriz piztua zela bereziki EAJ PNV rekin, baita ETA jazarkunde mogimendua ere sekulan baino gehiago indartsu, huna nun, adibidez, ANV ( Eusko abertzale ekintza ), ESB, Hasi, Laia bezalako ezker gisako alderdi ttipi handien ingurutik ere abiatzen eta handitzen dela **Herri Batasuna** ( HB ), orduz geroz hain ezaguna izan dena. Aski aldrebes jarria PNV ekin, H.B. k ez du ETAK daraman jokabidea gaitzesten: gauzak zeharo ezkeretik hartuz, Euskal Herri osoaren lurraldetasuna eta autodeeterminazioa dituela oihukatzen kemen handiz. Funtsean ETA-k eta honen inguruak bezalatsu. Denbora berean garaiko kapitalismoa duela zinez begitan honek ere. Aro berriak ere dira eta Hego Amerikako indar iraultzaileak ere nolazpait aski eredu handi zaizkio berdin ( Nikaraguako eta beste... ). Garai hortan berrindartzen baita ere ELA ( Eusko langileen alkartasuna ) deitu zindikatu abertzale oimentsua eta laster sortzen ere beste bat LAB ( Langile abertzaleen Batzordea ), hau HB.ri aski hurbil eraikia.

Hauteskundetan gora behera frango ukanik: izen aldatze, zer nahi debeku, preso hartze, erahiltze eta gaineratiko ezbehar handi, H.B. ren ildoan beti hor da, azkenik “Batasuna” deitua eta aski laster debekatua hau ere, bere GiNaBizArako buruzagi gehienak preso ezarriak. Denen ginetik boz kopuru ederrak biltzen ditu alde batean edo bertzean, gehien bat halere Gipuzkoan. Denetarat hemen %12 – 15 artean kokatzen dela. Azkenik aski lanetan, ezin erabakiz garbiki ean ETA ren ingurutik zinez urrunduko behar duen eta beste abertzale batzuekin “burujabetasun gune” indartsu bat moldatu ala lehengoan jarraiki. Laster jakinen baita omen hau ere, aditu batzuek diote-nez.



**Eusko Alkartasuna**

Alderdi hau, 1986 an sortua da Karlos Garaikoetxea Euskadiko Lehendakari ohia buru eta aski kementsu plazaratua Euskal Herri osoan berdin: Tokian tokiko gisaz eta legez. Lehena hain segur hola jokatzeko euskal eremu guzian. Gehien

bat EAJ-tik kanporatu kide andana batekin abiatu zen, lehen urtetan segurik arrakasta ederra zuela hauteskundetan ( %12 ). Geroztik, aski gutituz joan dena kide berri andana hurbildu bazaio ere. Eremu elektoral finkoa kausitzea hain zaila alabainan EAJ eta HB ren arteko lehia gorrian eta alde askotarik aski tapatua, laster erreformista soil ekarria abilki. Eta bitxiki euskal, espagnol eta frantses komunikabide gehienetan baztertua. ( CIA ere ez dela lo orduko Madrileko Europa Press ekin berdin ? ). Halere, gaur egun, sortzetik beretik plazaratu mezu orokorrak ( E.H. **lurraldetasuna** eta **burujabetasuna Euskal Errepublik** : Europan), **autodeterminazioarena**, **politik** **demokratiko** eta **baketsuarena**, **laikotasunarena**, **sozialdemokraziarena**, **Europan estatu gabeko Herrien alde bermatzea ALE rekin** eta abar... geroz ta oihartzun gehiago duela dirudi halere. Behari askok diotela, geroztik sortu alderdi abertzale batzuek, berdin pondu askotan hurbildik “aise kopiatzen” ere dutela orain, denboraren buruan ! Ikusten ere dela euskal abertzale aurrerakoi gehienek bide lagun nahi dutela ere geroz ta gehiago. Hauteskundetan, nun, noiz, nola, % 5 eta 8 en artean kausitzen da orain GiNaBizAra gehienean. Nafarroan “Nafarroa Bai” koalizio kide dela bereziki Batzarre, Aralar eta EAJ rekin.



Alderdi abertzale sozialista bezala izendatzen da 1990 an Patxi Zabaleta Nafartar abokatuaren inguruan sortua dena eta ezkeretik joz. Euskal Herriaren burujabetasuna bilatzen du honek ere.

Herri Batasunaren baitatik berexi eta Nafarroan finkatzen da lehenik Nafarroa Bai ( EA, Zutik, Batzarre eta PNV ) koalizioan sartuz aski indarrekin eta 2004 an denen arte deputatu andere bat ardietsiz Madrileko parlamenturako.

Gero Euskadin, kasik bere ahalez bakarrik, bere lehen deputatu andere bat ardiesten du ondoko urtean (%4 bozekin)

eta geroztik hemen berean azken bozetan, 2009 an, % 6, 5 rekin, 4 deputatu.

Iduriz, EA rekin lehia batean dabilkigu, honen ikuspegi berdintsua partekatuz ( kopiatur, diote batzuek.. ) pondu askotan. EA ez bezala “Ezker abertzale” delakotik aterara denaz geroz, ezkerren fagore gehiago ere duela ematen du. Azken berrietan bere lerroak zaindu nahiago ditu “euskal subirautza” edo “Burujabetasun gune” baten beharrez ez duela gehiegi sinesten. Ginabizara ko eremuari mugatzen denaz oraino, Labenzun nagusiki ari den Abertzaleen Batasuna koekin lotura batzuek jarriak ditu halere. Lanak ditu nolazpait honek ere Ezker Abertzalea delakoaz onartua izaiteko, hain segur hortik sortua delakotz.



**Hamaika Bat**

Alderdi hau joanden urtean EA tik berexiz moldatua, bereziki Gipuzkoan eta iduriz aski bitxiki. Baiziketa EAK Batasunaren jokabidea fagoratzen duela euskal instituzioena baino gehiago. Bitxiki moldatua diogu, zeren EA ren kongresu bezperan atera baitzen hortik bere ikuspegia beste EA kidekin eztabaidatu gabe ere!

Lan izanen duela, iduriz, Hamaika Bat ek Euskal Herri osora hedatu aintzin, egiatzko alderdi nazional batek behar duen bezala. Hala nola Batasunak, EAK, EAJ /PNV ek egin bezala.

Bukatzeko : Denborak erakustera emanen duela, berdin aski laster, alderdiak lehen jartzen diren ala Euskal Herriak, ihardokitzekotz, baitezpadako duen indarretaketa zinez demokratikoa edo gutieneko alkartasun egiatzkoa gaitzaten duen. ( Gauzak laster joan baititezke alde batera edo bestera ).

Manex Pagola



## GATU ALA SAGU ?

Très heureuse année ! Le sera t-elle pour celles et ceux qui luttent contre ce tracé de LGV qu'on veut nous imposer ? Alors que les voies actuelles ont tant besoin d'amélioration comme l'a prouvé entr'autres ce déraillement qui a eu lieu près de l'hôpital d'Orthez.

Aux dernières nouvelles, après la réunion de Bordeaux de ce 11 janvier, les médias ont montré un projet de ligne de 1km de large, mais personne n'en connaît le prix. Réunion fictive ? Victor Pachon affirmait en connaître le contenu depuis 3 jours. D'autre part, il a envoyé aux candidats aux régionales, une longue lettre argumentant la non nécessité de cette nouvelle ligne. Il veut connaître la position au moins de chaque tête de liste pour appeler à voter en conséquence.

Urte berri hau, nolako izanen ote da LGV horren aurka hoinbertze urrats egin ta egiten dituguentzat ? Alta baliteke lan oraiko burdin bide horren antolatzen, Ortese ospitale ondo hortan gertatu den ixtripu horrek, besteak beste, erakutsi duen bezala, lanjerra sortuz, aste batez treinen harat hunatak ezeztatuz.

Bertzalde, hazaro ondar hortan, Urrunako « Orain ta gero » elkarteak ohartu



da « LGV Sud Est » hartzen ahal zela adibide gisa : han, hautetsiek beharturik bezala, estatuak onartu du, ararteko baten bidez, jadanik egin zen burdin bidea baliatzea ingurumenaren begiratzeko gune batzuetan bederen. Hango trabak ta hemengoak elgar idurikoak direnez, Michel Hiriart jakinean ezarri dute ta ararteko hori galdegina izana da.

Donibane Lohitzunen ere bazterrek kezu dira ta beren baldintzak mahai gainean ezartzen dituzte. Philippe Juzan en arabera salgai zamak Donibanetik pasarazteak ez luke itxurarik. Bordele, Mont de Marsan, Pauetik, Zaragozara igorri behar litezke.

Senpereko auzapeza kezu prefetek igorri manuz : afixatu behar du, nola teknikalari batzuek baduten edonoren ontasunetan sartzeko baimena, LGV hori dela ta.

Beste auzapez batzuek ere ukana dute manu hori. Armadan bezala ?

Daniel Poulou, Urrunako auzapez ohia, orain deputatu, lan aldaketak, iritzia ere aldararazi dio: lehen LGV horren aurka, orain alde. Nora haize, hara bele ?

Biarritzeko auzapezak ere burdin bide berri horren alde dela agertu berriz ere. Hango palazioek ez dute irriskurik alabaina !

RFF-ek bere aldetik, denboraren buruan Citec ikerketa ez du onartzen. Berri hortaz ez du hautetsiekin biltzarrik egin. Ez delakoan gai ? Hautetsiek, S.O en bitartez jakin dute berria. Ez dira harritu, ikustate guti baitute «jaun handi» horiek.

Azken berrietan, Bordelen Copil ( koropil ? ) horren biltzarraren ondotik agertu dute km1 en hedaturako bide berri horren xede bat, preziorik gabe. V. Pachon ek zion 3 egun honetan bazekiela zer errana izanen zen. Alegiazko bilkura beraz urtarrilaren 11 ko hau ? Dio ere bide horren lurperatzeko, aipatzen den bezala, lehenik gaitzeko ildo bat ideki behar dela bazter guziki xehatuz ta gero lurrez estali. Zer errespetua ingurumenarentzat !

Herri aldetako hauteskundeak hurbiltzen ari direla ta, gutun luze bat igortzen die hautagaieri LGV hortaz argibide guzietan. Zerrendaburu bakotxaren iritzia ezagutu nahi du. Anartean, urtarrilaren 23 an, Hendaian dugu hitzordua !

## COPENHAGUE

Par ordre du maire, des affiches vertes de « Bizi » sur Copenhague ont été enlevées à l'aide même de grues, des fenêtres de particuliers à Bayonne.

Toujours à Bayonne, à l'appel de plusieurs associations écologistes, plusieurs centaines de personnes ont formé une chaîne humaine évoquant les enjeux de Copenhague.



Copenhagako biltzarkari, « Bizi » alkar-teak galdegini, Baionako biztanle batzuk ezarriak zituzten leihoetan afixta berde batzu « Planète en danger, mobilisons

nous ! » ziotenak. Baionako herriko etxetik ukan dute manua telefonaz afixta horiek kentzeko, izun mehatxuekin. Argan ( grue ) handi bat ere lan hortan ikusi da.

## OIHAN

A Villefrance, un projet de forestation est proposé par ,ONF.

33 ha oihan bada Milafrangan. Ezagutu ditu su, lapin, zuhaitz landatu berri jale. Orain haatik hor da baina ez da zaindua. Orduan, ONF erakundeak antolamendu xede bat eskaini die hautetsieri: lehenik, biztanleak gomiatu beren egurra oihan hortan hartzera ta oihanbideak egin. Gero, zuhaitz ez berdinak landatu. Laguntzak balitezke hortarako. Xede hori onartua izan da.

## SYMPATHIQUE RÉUNION AU BOUCAU



Une bien sympathique réunion a eu lieu au Boucau le 6 janvier dernier en présence de notre tête de liste Europe Ecologie, David Grosclaude et l'actuel élu vert J. Lissar. On y a parlé entr'autres des infrastructures, des problèmes de santé passés et actuels sur la zone portuaire, avec à l'appui, des projections bien parlantes.

Urtarril honetan Bokalen bildu gira ingurumenaren axola daukagun talde eder bat, D. Grosclaude, Europe Ecologie zerrenda buruaren ta J. Lissar Akitania eskualdeko hautetsi berdearen inguruan. Hor erakutsiak izan zaizkigu « diapositiba » batzuen bidez, lehengo lantegi batzuen inguruko kutsadura zoin axola gabeki kontutan hartua zen : langileak gerizapenik gabe, errauts radioaktiboan erdian, inguruko biztanleak berdin, ta, bixta dena, denak jakin gabean ; haur ainitz ospitalera behartuak. Ta orain ? Horgo pozoinak kenduak ote dira ala gordeak ?

Iduriz, Akitania herrialdeko kontseiluak eskuratu beharrak zituen eremu horiek bainan kutsadurak kentzekotan. Eskuratu ere ditu bainan kutsadurak kenduak ote dira ?

Kattalin Gorri

Le «nationalisme progressiste», représenté dans l'Hexagone par Régions et Peuples Solidaires (R&PS) est en plein essor. Après l'élection de François Alfonsi, son porte parole, la fédération frappe désormais, avec détermination, aux portes des Conseils Régionaux.

Comme à chaque échéance, R&PS présentera des candidats dans l'ensemble des circonscriptions la concernant . Comme pour les européennes, c'est au sein d'Europe-Ecologie que R&PS présentera ses candidats. Mais pour la première fois, c'est avec le souhait de placer des élus dans la plupart des régions que R&PS part en campagne.

## R& P.S. Federazioa martxoko eskualde hauteskuntetan

### En Bretagne



La Bretagne a une surface de 34 000 Km<sup>2</sup> (un peu plus grande que celle de la Belgique) pour une population de 4 035 000 habitants en 1999 (environ la population de la République d'Irlande).

L'Union Démocratique Bretonne, avec ses trois conseillers régionaux sortants en Bretagne B4 dont un vice-président (K. Guyonvarc'h) a acquis en 5 ans une forte expérience de l'institution régionale. Son action très remarquée dans la lutte contre le réchauffement climatique et le renforcement de la coopération interrégionale internationale, permet à l'UDB de partir avec beaucoup d'espoir. Sur les listes Europe-Ecologie, l'UDB a obtenu la conduite de la liste dans les Côtes d'Armor ainsi que la deuxième place dans le Morbihan et la troisième place dans le Finistère et l'Ille et Vilaine. Dans un scénario bas à 13% au premier tour (en dessous de celui des européennes (18%))et une victoire au deuxième tour en alliance avec le Parti Socialiste, l'UDB obtiendrait 4 élus.

En Loire-Atlantique, l'UDB présentera des candidats mais non éligibles.

### Au Pays-Basque

Eusko-Alkartasuna, fidèle partenaire de R&PS, sera associé en Aquitaine au Partit Occitan (Poc) sur les listes Europe-Ecologie dans le département des Pyrénées-Atlantiques. C'est Manex Pagola et Halima Sabri qui représenteront les abertzale pour le contingent de E.A.. Toujours dans un optique d'ouverture et de solidarité, EA a accepté de donner la priorité à une candidature occitane béarnaise du POC. Son investissement dans la



**Pèire Costa**  
Chargé de communication de Régions et Peuples Solidaires

précampagne a permis au POC de récupérer la tête de liste dans le 64.

### En Occitanie

Les élections régionales 2010 marqueront un tournant pour le POC. Pour la première fois de l'histoire, une formation autonomiste occitane est en capacité de faire élire des représentants dans la quasi-totalité des régions du Pays d'Oc. Hormis Rhône-Alpes et malheureusement probablement le Limousin, le POC a obtenu des places éligibles.

Alors qu'en Aquitaine, le POC, en la personne de David Grosclaude mènera la liste basco-béarnaise du 64, le POC a obtenu de la liste de Gérard Onesta en Midi-Pyrénées la 2ème place dans les Hautes-Pyrénées et la 3ème place en Aveyron. Ces places permettraient aux Occitans d'avoir entre 1 (12%) et 2 élus (16%). En Languedoc-Roussillon, les discussions ne sont pas arrêtées. R&PS y souhaite une place éligible pour le POC.

En Provence-Alpes-Côte d'Azur, la formation occitane est assurée d'avoir deux élus régionaux si Europe-Ecologie se maintient au deuxième tour et gagne après fusion avec le PS le second tour. Les négociations se poursuivent pour qu'un troisième représentant du POC soit élu dans un scénario à 16% et un quatrième dans un scénario à 20% au premier tour.

En Auvergne, le Président du POC et de R&PS, Gustave Aliol est assuré d'une place éligible en cas de victoire contre la droite au deuxième tour avec Europe-Ecologie et le PS.

Si tout se passe comme prévu, le Partit Occitan peut espérer gagner entre 6 et 10 sièges à travers toute l'Occitanie.

Le POC deviendrait ainsi la formation la mieux pourvue de tout R&PS.

### En Savoie

Le MRS a réussi à obtenir la 4ème position dans le département de la Haute-Savoie. Ce résultat devrait, grâce à l'alliance dans Europe-Ecologie, permettre aux Savoisiens progressistes de faire leur entrée dans l'institution régionale installée à Lyon.

### En Alsace

Le mouvement alsacien membre de R&PS est en pleine restructuration. L'Union du Peuple Alsacien (UPA) devenue Unser Land est également partie prenante d'Europe-Ecologie pour l'Alsace. Unser Land occupe la 8ème place dans le Haut-Rhin.

### En Corse

Le Parti de la Nation Corse (PNC), dont le secrétaire général est Jean-Christophe Angelini a fait un grand bond en avant avec l'élection de François Alfonsi au Parlement européen. Le PNC dans une configuration du type Europe-Ecologie pourrait, si les négociations avec les autres formations nationalistes modérées de l'île aboutissent, se retrouver dans l'exécutif de l'Assemblée de Territoriale. Depuis les dernières élections municipales, le PNC voit de succès en succès (45% à Porto Vecchio aux municipales, 24% aux européennes avec Europe-Ecologie ce qui fait désormais du PNC/EE la deuxième force politique de l'île). Comme pour les autres Peuples de l'Hexagone, ces élections peuvent devenir historiques.

### Pour les Amazighs

Les Amazighs, à travers le Congrès Mondial Amazigh présidé par Lounès Belkacem, sont depuis un an présents dans R&PS. Pour leur première participation à une élection, les Amazighs ont obtenu la 6ème position dans l'Isère. En cas de victoire au deuxième tour d'Europe-Ecologie conte la Droite avec la Gauche, L. Belkacem deviendrait Conseiller Régional en Rhône-Alpes.

Pèire Costa

Chargé de communication de Régions et Peuples Solidaires

**GiNaBizAra ko abertzaleen joera batzuetaz  
Ikuspegi bat...**

**Coup d'oeil sur les partis Abertzale du Sud du Pays Basque qui n'en sont pas moins de six ! Face à l'union sacrée (gauche, droite) espagnole déjà en place.**

Euskal Herri edo Euskadi osoak 20.000 Km2 eta 3 miliun iragantxerik biztanle ditu. Gaur egun, Frantzia eta Espainiaren artean beti hain zentzugabeki zatitua izanik ere gure aberria, hor ditugula alde batetik "Iparralde" delakoa, hain moldegabeki eta pizuki deitua naski edo hobeki zai-guna : **Labenzu** ( Lapurdi, **BeNafarroa**, **Zuberoa** ), bestaldetik "hegoaldea" edo **GiNABIZARA** - deitu genezakena ere xuxenago: **Gipuzkoa**, **Nafarroa**, **Bizkaia**, **Araba** ! ( lurralde berezien **izenburuak bederen** errespetatuz ! ).

Jada aurreko edo aintzineko zenbaki batean ( Zn.34 – Urria ) aipatu dugu gainez gain bederen zer gisatarat ari diren, euskal alderdi abertzaleak Labenzu-n edo iparraldean: AB, Batasuna, EA, EAJ / PNB. Denen arte %10 inguru hortan direla hemen oraino hauteskunde nagusienetan.

Aldi honetan beraz GiNABIZARA ren aldi ! Horgo euskal alderdi abertzale gisa ezagunenak eta nazionalki guti edo aski finkatuak direnak ditugula bereziki aipatuko.



EAJ / PNV

GiNaBizAran beraz, euskal abertzale guzien artean **%55 inguru boz** biltzen da hauteskunde nagusietan . Hor dugu historikoki eta lehenik EAJ / PNV "Jaun Goikoa eta Lege zarra" beti bere aspaldiko lemarekin, Sabin Arana Goiri ikerlari kartsuak, XIX. mende bukaeran ( 1895 ), inguruko karlista eta abertzale batzuekin, ordu hartan, sortu alderdi abertzale zaharrena. "Euzkadi" hitza bera eta Ikurrina asmatu zituena, euskal abertzalegoan luzaz jaun eta jabe ( urte askoz euskal alderdi nazionalista edo abertzale bakarra ) eta herri honen historia latzari asko eta asko ordainduz beste orduko euskal gobernuko alderdi batzuekin ( ANV eta beste.. ) bereziki denbora batean : 1936.gerla zibila, Durango eta Gernikako bonbardaketa ! hainbeste hil eta desterratu, Franco ren zapalketa lazgarri luzea... ).

XX. mende erdi arte ( 1950-1960 ),euskal abertzaleen artean egiazko zutabe bakarretarik ANV rekin nolazpait. Franco joan eta ( 1975 ) hainbeste indar jarraiki agertu ere duena molde askoz gure herri lehertua alde hortan bederen altxatzeko.

Eta enbor zahar orok beren adar berriak bezala, jada orduko mende erditik honara ( 1955-1960 ), nahiz EAJ hori aski ongi errotua zela GINABIZARA

aldean, beti kristau demokrazia delako ideologiaz hazia – kontserbatismoan bakarrik ote ? - aski hurbildik dauka laster **Ezker Abertzalea** deituko den olde abertzale berria, ANV, eta ondotik bereziki, HB mugimendua. ETA-k baino gehiago, berdin, iraultza kultural indartsu batek ( literatura, artea, jakintza, kantua, bertsolaritza...) ere suharki sustatua. Eta zorigaitzez ere, ezinbestez beharbada ! ETA ren jazarpen bereziari askotan aski hurbildik ariko dena. Bainan denen gaintetik EAJ-k ongi ihardokitzen du, aldian aldika botu emaileen herena ( %30 ) guti gora behera bilduz berak bakarrik ( berdin gaur egun ere, bereziki Bizkaian ), salbu haatik Nafarroan, hau guziz herrialde historiko "jaun" eta eremu berezia baita ere biziki espanioldua halere nolazpait !

Halere, gaurko Euskal Erkidegoan ( Araba, Bizkaia,Gipuzkoa ) EAJ / PNV-k berak 30 deputatu lortuak ditu azken bozkaldian ere eta beretik ari da. Ezin erabakiz berdin, omen, tokiko autonomiaren eta euskal burujabetasunaren artean.Joko hortan galdu ere duela orain Euskadiko gobernua kudeaketa, hala edo hola eremaiten zuena EA eta IU espaniol ezkerrekoekin.



**Eusko Abertzale Ekintza / ANV**  
Alderdi hau, askotan zinez guti aipa-

tua, bainan beti hor dagona, azken urte hautan ere, berriz, Espaniol gobernua debekaturik badauka ere ! 1933 an sortua Bizkaia aldean, EAJ / PNV ren ohizko abertzale ikuspegiari berritzapen asko ekarri dituena. Abertzaletasun idekiarenak: laikotasuna, errepublikazale eta aurrerakoi izatea. Lanak izan zituen leku baten egiteko EAJ / PNV ren aldean. 1935 an, Eibarren antolatutako biltzar famatuaz geroz, Eusko Abertzale Ekintzak sozialismoaren eta E.H. autodeterminazioaren bidearen alde jartzea erabaki zuen, gisa hortan euskal ezkerreko lehen alderdi abertzale gisa agertzen zela. Frankismo denboran zer nahi lan eginik,ahal bezala, etzuen halere aski ihardoki ahal izan alderdi berri zabal bat izateko, ezker aldetik, EAJ / PNV ren sahetsean. 1977 az geroz, Herri Batasuna sortu zenean, alderdi huntan sartu zen bainan etzuen jarraiki nahi edo ahal izan HB azkenik "Batasuna" bilakatu zenean.Gaurko egunean, zerbitxu asko eginik "ezker abertzalea" delakoari ( honen ordez hauteskundetan agertuz eta abar...) orain garrazki debekatua da, funtsean Batasuna bezala.

**Ezker Abertzalea**

**Ezker abertzalea**

1978. urte inguruan ( Franco diktadorea 1975 an hila ) euskal ohizko abertza-

**Bientôt  
le procès d'EHLG !  
Tous mobilisés !**

A l'appel de « EHLGren Lagunak » avons participé à Ainhece Mongelos à la réflexion préparatoire au procès qui doit se tenir à nouveau – mais cette fois à Pau ! - contre la Chambre d'agriculture alternative du Pays Basque nord ( EHLG ). Réunion instructive qui a bien résumé la nature et le pourquoi des reproches qui sont faits à cette institution associative de première importance pour l'agriculture spécifique basque.

La mobilisation est d'ores et déjà en route et il est certain que, vue l'affluence au 5e anniversaire d'EHLG le samedi 16 janvier dernier, très nombreux seront ceux qui feront le déplacement à Pau pour soutenir le président d'EHLG, Mixel Bercoirigoin, qui n'entend surtout pas baisser les bras !

Parte hartu dugu gure **Ainiza Monjolosen, EHLG ren kontrako dei auziari buruz izan den gogoetaldian.Prefetak egiten duena ezin onartua dela eta hortakotz jendeak saldoan joan behar lukeela Pauera bakarrik horren erraiteko eta Mixel Bercoirigoin lehendakaria hurbildik sustatzeko.**

**Joan den larunbatean euskal Laborantza Ganbara horren 5. urteburuan ikusi den jende andanak ere erakusten zuen ez duela gogoia saldua alde hortarat eta hain segur Pauera joanen direla aintz eta aintz sustengu beroa ematera.**

**LGV2, c'est non !  
RDV en masse  
à Hendaye l  
e 23 janvier à 16h !**

Projet débile ( pour gagner 5 à 6mn!) et mal agencé, gaspillage monstre (des sommes folles payées par les contribuables d'aujourd'hui et de demain...) , massacre du paysage basque ( offense à la paysannerie locale, à son cadre d'exercice et à son esthétique ), voilà ce que veulent dénoncer peut-être surtout tous ceux qui s'approprient à manifester en masse à Hendaye le 23 janvier à 16h contre la LGV 2 en Labourd et ailleurs. Maladie du modernisme dans la peau de tous

AHTrik Ez! Proiektu Txikitzaileak Gelditu!

**MANIFESTAZIO NAZIONALA**



ces beaux parleurs, car projet financé, disent-ils, par l'Europe, l'état français, la région, le département. « Tout bénéf ! » comme prétendent certains clairons de grands partis ! Mais qui paye, mesdames et messieurs, l'Europe et tous les autres organismes cités ? Les contribuables !! Et même beaucoup d'entr'eux qui n'en peuvent plus ! Comme tant de smigards et même les sans emploi qui s'en voient tant actuellement pour joindre les deux bouts ! La ligne actuelle suffit largement si on l'améliore. Il vaut bien mieux commencer par là et ne pas nous CONTRAINDRE A DES DEPENSES VRAIMENT INUTILES !

**Aintz bada erranik eta eginik LGV2 delako bigarren burdin bide egitasmo hori baztertzeko. Orroitz ere, Baionan erokeria horren kontra bildu ziren 12. 000 manifestariak, beste hainbeste eta berdin gehiago bilduko dela iduri bailuke urtarrilaren 23 an Hendaian.Pozten garena ere eskualde huntaz haragotik ere jin beharrak direla zernahiko manifestariak. Denen buru ere « Europe Ecologie Aquitaine » koak, Monique de Marco zerrenda burua eta bixtan dena departamendu huntako zerrenda berdina gidatu beharra duen David Grosclaude okzitanista.**

**Mobilisation Copenhague**

Avons également participé bien volontiers et en plines journées de Copenhague à la magnifique ronde humaine organisée par le collectif BIZI à Bayonne et qui, face à la mairie, englobait les ponts Marengo et Pannecau. Malgré un froid bien dru,

près d'un millier de gens peut-être, toutes sensibilités confondues, mais plutôt de gauche, communiait ainsi de près aux revendications climatiques exprimées au Danemark.

EA qui est aussi écologiste jusque dans ses statuts se devait d'être de cette action particulière à Bayonne. En avant BIZI ! La vie !

**BIZI kolektiboa sekulako karrarekin jeiki zaiku eta beti aintzina ari ederki. Aski zen, adibidez ikustea Copenhagako egunen karietarat zenbat ekimen muntatu dituen gisa batera edo bestera. Hauetan azkenik ederrenetarik, Baionako Mayou eta Pannecau hartuz, antolatuta soka**



luzea, horratz hainbeste jende bilduz, adin guzietakoak eta hain segur ideia mota ezberdinekoak berdin, gehienak berdin ezkerrekoak halere, iduriz...

**Elections régionales  
2010 !**

La liste départementale Europe Ecologie Aquitaine devant être menée dans les P.A. par David Grosclaude, occitaniste de premier plan et membre de R& P.S / Régions et Peoples solidaires ( Fédération des autonomistes des peuples de l'état français), partie prenante d' « Europe Ecologie », Eusko Alkartasuna, membre cofondateur et toujours actif de cette organisation, a décidé d'en être avec Halima Sabri Bartkowski, enseignante et traductrice interprète de Bayonne et Manex Pagola, anthropologue socio culturel à Urcuit. Rééditant en cela la même démarche qu'aux Européennes avec l'élection de José Bové et Catherine Greize. Bien convaincu d'ailleurs que bien des revendications spécifiquement basques et même abertzale y auront une belle résonance et au moins un élu R& P.S. au Conseil Régional d'Aquitaine ! Une première ! Les abertzale démocrates et autonomistes alsacien, breton, nord catalan, corse, occitan et savoisien sont d'ailleurs sur la même ligne. Encourageant, non ?

P.J.